

Eun milla pezetako saria

«Vida Nueva»tik jaso degu berri au: amasei maixu bildu ziran beren artean, bakoitzak aurreratutako dirua jarri zuan alkarrekin lan egiteko; onela, iritzi zuten diru-aurrerapen bat eta diru orrekin Argitaldaria bat sortu zuten, aur-eskoletako libururak argitaratzeko.

Argitaldaria orrek «Prime Luze» izan zuan izena. Gaur argitaldaria orren inguruan, zazpirehun maixu bildu dira ta bachiller-libururak ere argitaltzen ditu. Laster «bistak» eta esku-lanak eta abar ere zabalduko dituzte... Orrez gainera, urtero 100.000'ko saria eskeintzen diote, gai bati buruz ateratzen dan libururik onerari.

Orra gertari polita. Asiera txikiok asmo arek, ondoren zabala ta ongaria izan du. Baiña gertaera ori ezta alperrikakoa izan guretzat. Ba-degu ikastekorik asko maixu oien asmoetan.

Gure errietan or-emen zabaltzen ari gera ikastola-kate polita. Asiera txikia izan dute guziak.

Ta lanbide orretan, premi aundia somatzen degu: ikas-liburu egokien premi gorria. Gure maixu-maistrak, ez dute esku artean, liburu egokirik aurrei erakusteko. Bakoitzean, bere buruko argiari eskerrak ari da aurren buru-biotzak ezitzen. Baiña era ortan, alegin asko alperrik gaitzen da.

Urtero eskeintzen dira gure artean, sariak, olerkirik ederrenentzako, antzerkirik bikaiñentzako, nobelarik giartsunenarentzako...

Ederki dago au guzia; baiña sariarik ederrenak komeni zaizkigu ikas-libururik onenentzako. Urtero-urtero gure eskolak liburu egoki ta apañiagok bear dituzte; gure irakasleak itxu-itxu ari tu ez ditezen beren lanean.

Libururak berezala, erakus-biderik berrienak inguratu bear genituzke gure aurren buruak argitzeko: onela «bistak», pelikula eta argigarri asko dira aurren buruak jakitzeko aberasteko ta gure maixu-maistren lana errezteko. Danetik argitaratu diteke sail ederra urtero.

Liburu argitalte ori betik gora egin bearko degu. Lenbizi aurren eskoletan lenengo ikastaroetako bear diran libururak sorditzagan. Gero batxilerreraokoa banan-banan atera ditzake. Ta azken-maietara liburu guzik eskuratu arte, eztegu lanetik atertuta bear.

Aur-eskoletatik Unibersidaderañikoa bidea lueza da; baiña utzi ezinbeza. Gure irakaskintza osoa euskeraz tajutu arte, ezin geldi ginderke. Ortarako ez genduke diru aundirik bear asieran. Bildu ditezela kezka onek esnatu dituan maixu maistrak, eta diru-aurrerapen bat iritxi dezaten asteok. Diru orrekin, sariaketa onak antola ditzaten. Sariarik ederrenak eta aundienak, onelako libururak merezi dituzte; ikastola-kate eder bat iristen ba-degu, onek, beste edozer aurrerapenek baiño geiago eutsiko dio gure izkuntzari.

Zertarako ditugu poema goitiak, antzerki bikaiñak, nobela giartsuak, bitartean gure aurrak euskera gaitzen ari ba-dira? Ori gerta zaio latin izkuntzari: geroago ta liburu ederragoak eta ugariagoak latiniari buruz; baiña erriak latin izkuntza zokoratu zuan eta elizetan bakarrik gelditu zaigu elizgizonen artean erabililla izkuntza ori.

Ez dakigula ori gertatu gure euskerarekin.

Ta ori gerta ez dagigin, bide bakarra, eskola-kate egoki ta burutsu bat sortzea da. Ta eskola auen lana eragirikorra izan dedin, liburu egoki ta yoyoak jarri bear ditugu gure aurren eskuetan.

Nork egin bear du lan ori? Askoren artean egiteko lana da, noski. Baiña aurrena Euskaltzaindaria dagokio lan au arrotzea ta tajutzea. Orregatik, Euskaltzaindi barruan, ba-da BAZTORDE BAT aukerattua eskola-gailetarako. Bartzorde orrek artu bear du guzian alegiñak biltzeko ta zuzentzeko egitekoa.

Urrena, eskoletan lanean ari diran gure maixu ta maistrak osatu bear dute lan ontaroko taldea. Eginbide ontan ari diranak, inork baiño obeto ikusiko dituzte, lanbide onek dituan premi ta oztopok. Bildu bitez gure euskaltzainak eta irakasleak sarri alkarrekin. Aztertu bitez gure eskoletako eginbeurrak bilera oietan eta ortik sortuko da argirik onena lan au aurrera eramateko. Gu zai gaude. Nork jasoko du gure deia?

ESKUTITZAK

APAIZ JAUN BATI

Lengo egunean zure errira joan nintzan, itzaldi bat egitera.

Nerea botaz gero, zuk, itza arturik, ia immigrante edo kanpotarren problema nola ikusten nuen galdetu zenidan.

Erantzuna etzan erreza, arazo orrek amaika arpegi ditulako, eta guztiak batean ikutu bear dira, gezurrezko agerketa bat ez egiteko.

Nolanai ere, nere iritzia argi ta garbi jakin arazi nintzu.

Baiñan zu etzetorren bat nerekin, osotora beintzat. Beste lagun batzuek sartu ziran orduan eztabaidan eta, gertatzen dan Mezela, inork eztekin azkenean nundik zebillan.

Esan ziran gauzetan, bat esaugarria iduri zitzaidan, au da, Andaluzi ta beste España'ko aldetan, jendek, bere etsea utzita, Kanpora atera bear dula, naita-naiez, bizi ahal egiteko, "Iur aiek jateko eman epaidute". Itz batean, erri aietako seme-alabak erraldara kondentatuak ditrela.

Eziña uste au onatatz artea. Ango lurra emengoa baiño emakorraigo izango da, noski. Baiñan, gai au alde batera utzi bear zaio, arazoa ez bait dago lurrean gizonarenen baizik.

Erri baten soluzioa erraldan ez datza, noski. Gizona da berriz aurrerapenaren faktore nagusia.

Orain arabetarrak ta israeldarrek burrukaz asi direla, alde artan gertatzen dan guztiak dakite. Naiz arabetarren eskuetan dauden lurrak gorri ta sollak agertu,

Israel'ko jaisajeak lorategi bat dirudi. Eta lur berdina da!

Arrozioa du Ortega y Gasset jaunak: paisajea gizonak egiten du, ez berriz paisajeak gizona egin.

Andaluzi ta beste España'ko lurretan lan izugarri bat egin bear da, batez ere irakaskintza saillean eta gizarte oiturak aldakuntzean.

Ezta egia nere konferentzi ondoan batek esan zuena, alegia, alabearak lur aiek kondentatu dituztela. Asko egin diteke eta egingo da, Jainkoak lagun. Ordegu iberiko erriok gure "Populorum progressio" lana.

Emen daukat, ain zuzen ere, begiurrean, O.C.D.E.K. egindako plana, "Las necesidades de educación y el desarrollo económico social de España". Au eginkizun ederra!

Informe orrek dionez, milla aurretik lareun bat besterik ez dira joaten eskoletara ego aldeko alderri batzuetan. Planak eskatzen du 1975 urterako milla aurretik bederatzireun eskoletara joatea lortu dedilla.

Liburu ontan amaika gauza garrantzidun arkitu ditut. Gure artean ere egoki izango litzake berak eragutzea.

Ontaz bat zotozikada badakit. Baiñan esan dedana besteentzat esan det, gure errian ere astokillo asko bait dabil dirudienet.

Adixkide agurgarria, agur. Beste aldez berriro elkar ikusiko degu, espero det. Benetan, lana ezta bukatzen eta ezta bukatuko mundu ontan, "sekula sekulorum". Amen.

CARLOS SANTAMARIA

Azken hitz bat Bilbaoz

Darru dit, Egia esana damu dut Egjak min ematen du, eta zuek hurok, Santamaria, Trifol eta Egiguren jaunak, mindua damu dit. Eta zein tristeak diren egjak gizon prestuei ere min ematen dietenok!

Askok esan didate: Zure artikulura, «Bilbaoko Erdai Herritik» ez zait gustatu. Eta nik esaten nien: Baina gezurra al da? Nik berten esaten nuen, gezurra al da? Eta isiltzen ziren. Bilbaon euskeraz barra-barra egiten dela esatera ez zen inor atrebizten, Bilbaon euskal herri bat dela esatera inor ez zen ausartzen.

Baina dena dela, aiero bat gelditzen zitzaidan barrenean. Gezurra izan al da nik hainbeste urtetan ikusitakoa? Gezurra izan al da nik txiki-denporan euskeraz ez nenkiela, gure etxean, euskaldun jatorriko etxe bilbaotar harretan, inork ez zekiela euskeraz? Euskaldun banaz, liburuen koton trako burrukaldi gogor eta luze ba-tean euskaldun naizela? Ba li-teke... ni hain zororik egotea, erre-a lidade aidrakes batek itsuturik izate-a.

Orduan, zuen hirurori oroitza-pena hartu dut irudipenean, eta Barakaldotik Etxebarriko San Antonio eragin dut ostera, Lutxana eta Zorrozkako kaletatik jatsi naiz zuen eskutik (bertan beltz-kea, pirita eta axufrea ikusi dut deskargatzen). Kanpo-BoBlantinetik egin dut segida zuen besotik (estudiantek greban zuden punta batean, eta bestean argiaren indarrez hapatzen, zituen Añuntamatuak bere poetak), aurrera egin dut Zazpi-Kaleetatik zuen konpainian (ar doa, ardoa, ardoa). Olerietatik egin dut gora, Santutxu, Bolueta, eta kaminitok aurrera Etxebarri-ragino etorri naiz, eskuman utzi dut bertako eliz-gaztelua, eta ezkerretik munda-bide bat harturik, harnasa hartu dut txabolartean. Eta C. S. Lewisen "That hideus Strength", sei legoa eta gehlagoko itzala ematen zuen gaztelu gaitz harretako euska'dun apaizaren antzean, majik-denporetako mandataria sentitu naiz, mundu guztia-ri galdetzen niola: Nork dakit euskeraz? Nor da hemen euskalduna? Les grands chimtieres sous la lune.

Nire artikulua inori gustatu ez zitzaizala konprentzen dut, niri ere gustatu ez zitzaizalako. Nik ere hartu nuelako min. Gure egia murritza delako. Baina hobe da egia-ekin min hartu, ezen ez gezurra-ekin poz hartu.

Egun batean pozik joanen direla erdalduen jente hoiak haurrak euskal eskoletara? Auzkalo, Gaurko tristezia segurua biharko esperantzaz bada-espado horrekin es-taldu nahi baduzue... Nigatik... Euskera ez dela absolutoa? Zer da absolutu? Niretzat ezer ez. Horrekin ez dit inork ezer irakasten. Dena da relatibo. Ni gizona naiz, andre bat dadukadalako. Nire gl-zontasuna ez da absolutoa, baizik hartzen du oin nire andrearen re-lazioz. Euskalduna izateko euske-raz egin behar da. Euskararik gabe ez dago euskaldunik. Oin batzuk, premisa batzuk absolutotzat ematen badira, haletatik sortzen diren relazioak abso'utoak dira ha-laber. Baina nola ezin eman litez-ke absolutotzat, nola haek ere izan behar diren bestere, relazioz, dena da relatibo, ez dago absoluto-rik. Beraz, haur batzuk hitz-kun-tzaz aldatzen baditugu, hitz-kun-tzaren relazioz dagoen guztiaz al-datuko ditugu: Pentsamentuz, et-niaz, jenioz, nazioz, ohiutze...

Berez, aldeaz aurretik iragartzen badugu, parada dadukagunean gure herri artean dauden erdaldu-haur guztiak euskaldunoko ditugula, ez gaitzen harritu baldin erdalduenek gure haurrak erdal-duenok pauso guztiak ematen ba-dituzte.

Ba dirudi gure artean ideia bat-zuk tabu direla. Gure totemiamos izugarria da. Etnografi-galetan zer bait dakitenek tabu guztiek ekono-mik-arrazoak bat biltzen diete. Po-

linesiako uharteetan, konparazio baterako, propietade pribatua te-jitzejagatik diktatzen ziren ta-buak. Baina nik konpren ez deza-kedana da, zer protejitu nahi du-gion guk gure tabuekin. Gure pro-prietade pribatuak ez ditugu prote-jitzen euskeraren edo euskal ari-maren edo gure ohiutza zahar eta garbien tabuekin, espada espal-ñol' harmadarekin, inork esplik-a-tuko a' dit hau?

Kaso bat eman da aspaldian, tabu izugarria. Batek galdetu du: Zertarako euskaldun? Jose Azur-mendi fraile gazteak munduko in-jenuidade guztiarekin galdetu zuen: Zertarako euskaldun? Eta hor izan dira jantzen uraerak, eta buruaren galeko hauts-izurtzak. Tabu bat ukitzen zuen nere lagun-nak.

Eta inor ez da ausartu egia-re-kin erantzutera. Zertarako euskal-dun? Baina, gizonak, zergatik ez-kutatu nahi dugu guztiok dakigun-a? Zertarako ez. EZERTARAKO EZ.

Aitor dezadan nik nire egia. Zo-rorik nagoelako naiz euskalduna, eta gainera zororik egoteko esku-bidea dadukadalako.

Baina nire zorasunetik, eusku-tsean alor idorrean erieteko zora-tsunetik, beste zorasun horre-tara, lagun hurkoaren borondatea bortzateko zorasun horretara, alde handia dago.

Prestutasunetik dolorrerriara da-raman bide orpina.

Gabriel ARESTI

"Marxismo"-a eta gorriña

Orai dela denbora gutxi, Carlos Santamaria jaunak adierazten zuen, kulturazko gauzetan azaltzen ari zirela gazte batzu, Santamariak apaiz-takoto «marxista» gaztea, multzo horren buruzagia ba litz bezala ematen zuen.

Jakinduriaren aldetik hain funtsgabeko den ideologia horri ihardokitzea baino, hobe izango litzake, pentsakera hori sortu duten iturburu epokiak ikustea.

Lehendabizikoa, gure herriaren bakartasuna; eta honen ondorioz gure gazterik izan eta dun jakingabetasuna. Bigarrena, azken 30 urte hoke-tan, euskal-burgesalgo delakoa dagoen ideien illunpea. Eta irugarrena, izpiritun aldetik okertu nahi gaituen illunbetako oldarra, gure elkarren arteko lokarria utsi nahiez.

Horien jauntxokeri lana, ezauñ duguñ beste imperialismoaren sendea da; «unibersalismoa», «gizonen arteko karidadea eta anatasuna», «itzu-razko humanismoa», «gure auzoko politika ertsia», edo Unamuno zenaren nahikeria: «...apearos de la mula rabiosa y terca que os lleva por caminos de andadura que no son los vuestros ni los míos».

Orai, ba dirudi. «marxismo»-ari paper hoi tokitan zaiola.

Egia esan, garaia da apaizetako, diogun ideologia hori, eskolastika delakotik marxismoarengandik bezain urrun dago. Ez du dialektikaren iturzarrik, ez du garbi ikusten realitatea, eta are gutxiago marxismoaren mamirik; bezik, irakurraldien ondoreko pequeno-burges buru-bero ba-batzen asmakizun nahaspillatua.

Marxismoa, mundu guziko pentsaketa era bat da. Europako filosofia oinarri estuak dituen ideologia.

«Alemaniako langilleek beste Europako langilleen gaineko bi abantail nagusi dituzte. Lehenik, Europako herritar teorikoaren artean daudela; eta gainera, Alemaniako sasi-ikasiek galdu duten teoriko zentzu hori, gorte dutelako.

Alemaniako filosofia (burgesalgoena) agertu ez ba litz, Hegelena bez-rezik, inolaz sortuko etzen sozialismo jakituna —egundain izan den sozialismo bakarra.

Hortzen dago haren abantail aundia. Teoriaren ganako izan duten ezakokeriengatik dago atzeraturik ingles-langilleen mugimendua, tinko elkarturik egon arren; eta beste alde ditugu: frantzes eta beljikan artean pruhonismoak sortu nahaste eta etzapaik; eta sasi-ideologia bezala espainol eta itallanoen artean Bakunin zenak sartu zuena.» (Engels).

Zer gerta ere, egilearen izena aipatzen dut, reformista batanak direla gure «marxistek» ez dezaten esan, aleman nauzigoaren alde esandako laudorioak.

Neuririk gabeko erasia horiek, segetretuan ba leude bezala botatzen dizkigute sudurretara. Egia esan, hau dena guztiz farregarria da. Burgesalgon azitu eta ikasi dutenen eleak besterik ez bal-dire. Nolspeinika hori bai, «matxinada», «alienazioa», «proletalga», «burgesalga», «k-lase», «superstruktura», etab. Erabiltzen dituzten itzak, zer-ikus aundia dute haien adimenduaren tresnamenduakin. Gure «marxisten» oharren gabeko ideien artu-emanak, garbi nabaitzen dire, «burgesalga-proletal-goa» = «ongia eta gaizkia», «alienazioa» = «bekatua», etab.

Aserregarria bezal' artuko omen dute batzuek. Ez uste hala denikan; jostagarria da. Gorriña azalean bakarrik gelditzen da, ez du barnean ausirik egiten.

Egin-bidearen joera, ongi ikusia izan dadin, luzera so egin behar da. Ye-ye gisako matxinazetasun romantikoa utzirik, ba dugu ustea, ge-hienak sortu diren lekuan, burgesalgon, geldituko direla. Eta beste batzu, klase auziar' buruz egiazko analisa bat egingo ba lute, abiatuko direla —orduan— sozialismoaren bidetik.

J. ARANGUREN